

Bilbon, 2011ko uztailaren 22an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Aurelia Arkotxa, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Coyos, Jean-Baptiste,
Charritton, Pierre,
Davant, Jean-Louis,
Haritschelhar, Jean,
Irazu, Jose «B. Atxaga»
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sarasola Ibon,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel
Erramun Osa, idazkariordea,

Joseba Zabaleta, kudeatzailea,
Alfontso Mujika, euskaltzain
urgazlea, zegozkien gaitan.
Ezin etorriak eta ahalak:

Miren Azkarate; Patxi Goenagak, aha-
la Jean Haritschelharri; Patxi Salabe-
rrik, ahala A. Iñigori; Pello Salaburuk,
ahala J. Haritschelharri; Joan Mari To-
rrealdaik, ahala A. Sagarnari.

Batzarra goizeko 10:00etan hasi da
Euskaltzaindiaren Bilboko Egoitzan, ez-
kerreko zutabeen ageri diren euskal-
tzainak bertan direla.

0. Agurra eta hasierako oharrak:
Euskaltzainburuak, bilduak agurtu on-
doren, jasoriko ahalak adierazi ditu.

**1. Aurreko Batzarraren Akta
(2011/05/27) onartzea.** Andres Iñigok
eta Miren Lourdes Oñederrak zuzenke-
ta txiki batzuk egin dituzte. Horiek
kontuan harturik, aurreko batzarraren
akta ontzat eman da.

2. Exonomastika.

2.1. Ipar Afrikako toponimia: Libia, Tunisia eta Aljeriako toponimiaren araugaia onatzea. Euskaltzainburuak J.L. Lizundiari hitza eman dio eta Alfontso Mujika euskaltzain urgazleari aretora sartzeko eskatu zaio. Beronek azaldu duenez, aurreko zerrendari dagokionez, ez da oharrrik izan, eta, beraz, zerrenda ontzat eman da. Halere, Exonomastika batzordeak berak autozuzenketa bat proposatu du, Aljeriako toponimiaren araugaiian **Oraneria** toponimoa eranstea. Hori ere onetsi da.

2.2. Marokoko eta Mendebaldeko Saharako toponimia araugaia aurkeztea. J.L. Lizundiak zerrenda hau aurkeztean, horrekin exonomastika-batzordeak Ipar Afrikako izenen zerrenda amaitzen duela gogoratu du. Ondoren, A. Mujikak izen horien xehetasun batzuk aipatu ditu, arabierazko izenen letraldatze hutsak, bertan izandako Estatu kolonialen grafiengatik sortu diren tradizioak gogoratuz, batzuetan ezin saihestuzkoak. Bestaldetik, lurralde horietako toponimoak inoiz euskal literaturan ere aurki daitezkeelako, euskal iturriak ere kontsultatu izan dira (*Heria*, *Argia*, Tx. Peillenek eta Aljeriako eta Marokori buruz egindako artikulua eta liburuak...), baina, halere, ez da material gehiegi aurkitu. J.L. Lizundiak *Alhucemas*, uharteren eta hiriaren kasua gogoratu du. Bestalde, I. Sarasolak *Urteko Fedearen Propagationea* obra ere gogoan hartzeko eskatu du, hor alde horretako izen batzuk aurkitzen direlako. Kontuan hartuko da.

P. Xarrittonen ustez ez da ahanztekoa, halaber, erromatarren eragina, eta *Hippona* toponimo zaharra gogorarazi du. Hangoxea zen San Agustin, *Aitorkizunak* obraren egilea, eta ama-hizkuntza punikoa, hots, feniziera omen zuen. P. Xarrittonen, halaber, hegoaldeko euskaldunok ipar Afrikako toponimo batzuk (*Tanger*) gaizki ahoskatzen ditugula esan du. Gogoratu izan zaio erabakiak ez direla hegoaldeko euskaldunek hartuak, Euskaltzaindiak berak baizik, eta J.L. Lizundiak gaineratu du, garai Klasikoetako izenak ere kontuan hartu izan direla. Dena den, oharrak idatzirik bidali beharko dira aurtengo irailaren 16rako.

2.3. Afrikako Estatu berriaren izenaz.

A. Mujikak ohar bat egin du: Afrikan Sudan zeritzon estatua orain dela gutxi bi estatutan banatu da, eta hegoaldean eratu den estatuaren izena jada emana da espainolez eta frantsesez. Azaldu duenez, Exonomastika batzordeak, arazoa ikertu eta gainerako hizkuntzetan izandako aldakiak ikusita, honako hitzok proposatu ditu Estatu, hiriburu eta bertako herritarrak euskaraz izendatzeko: ***Hego Sudan*, *Hego Sudango Errepublika*, *hegosudandar*, *Juba*, *jubatar*.**

Tx. Peillenek *Juba*-ren hasierako fonema frantsesez (*Jean, jeudi*) edo Bizkaiko kostaldean bezala (*mendija, jan...*) ahoskatu beharko litzatekeela esan du. Halere, I. Sarasolak ez du hori beharrezkoa ikusten, eta J. Haritschelharrek ere hobeki deritzo gure ohiko *j*-ren antzera (hots, espainol edo frantsesezko *y* bezala) ebakitzeari. Gauza bera esan du M. L. Oñederrak ere.

P. Zabaletak Sudango hizkuntza nazionalak ere aipatu beharko liratekeela gaineratu du, baina I. Sarasolak eta J.L. Lizundiak azaldu dute zail eta luzeegia litzatekeela hango mintzaira guztiak banan-banan aipatzea. Segur aski jorubera eta swahili dira erabilienak, baina beste asko ere badira. A. Mujikak gogoratu du, gainera, bertakoek ere, ofizialtzat ingelesa besterik ez dutela aipatu, gainerakoak, oraingoz behintzat, zeintzuk diren xehatu gabe. Ondorioz, euskaltzainek Exonomastika batzordearen proposamena onartu dute, hots, Hego Sudango estatu berriaren eta hiriburuaren izenak, bai eta bertako herritar-hiritarrenak ere. P. Xarrittonen kontrako botoa eman du eta halaxe jasoko da bilera-agirian, berak eskatuta.

2.4. Iparraldeko ibai-izenen III. zerrendari buruzko oharrrak.

A. Iñigok azaldu duenez, ibai horiei buruz jasoriko ohar batzuen inguruan eskatutako azalpen argigarri batzuk ez dira garaiz iritsi eta, beraz, guztiak elkarrekin, irailako batzarrera ekarriko ditu, orduan eztabaidatu eta erabakitzeko.

3. Hiztegi Batuko bigarren itzuliko A-J tarteko sarrerak aurkeztu.

A. Sagarnak, euskaltzainen artean banaturiko A-J zerrenda aurkeztu eta azaldu du, testu idatziez lagundurik, orain arteko zalantza eta bikoiztasunen artean aukera bakarra eginez. Euskaltzainek zerrendako hitzei buruz oharrrak egin ditzaten, fitxa eredu bat ere erakutsi du pantailan, horko datuak betez biltzaileen lana errazten delako.

I. Sarasolak ohar orokorrak eta ñabardurak bereizi ditu, eta oraingoan *hobe* eta *erabil* markak ahalik eta gehien kentzen ahaleginduko direla esan du, Euskaltzaindikoa munduko ohiko hiztegiekin homologatzeko. L. Oñederrak, bestetik, irakurle-erabiltzaileei jarraibide argiak eskaini behar zaizkiela adierazi du. Bere aldetik, A. Sagarnak azaldu du, bere ustez, argibideez gainera, kasu batzuetan ikastaro batzuk ere eskaini beharko liratekeela, jendeari hiztegia probetxu osoaz nola erabili irakasteko. Oharrak Idazkariordeari bidali beharko zaizkio irailaren 16rako.

I. Sarasolak azaldu du, hiztegi aruemailearen ereduazko formez gainera, badirela beste hitz eta aldaki batzuk, arautuak ez izan arren, inoiz idazle eta sortaileentzat erabat baliagarri gerta daitezkeenak, eta B. Atxagaren aspaldiko kezka gogorarazi du, hots, hitz bakoitzaren nortasuna eta kolorea errespetatzeko. Oharra aintzat hartu da.

4. Plan estrategikoa garatzeko hurrengo urratsak aurkeztu eta berretsi.

E. Osa idazkariordeak «Ildo estrategikoa garatzeko hurrengo urratsak» izenburua daukan dokumentua aurkeztu du. Horiek horrela, irailaren bigarren astean, zuzendaritzak behin-behineko planak aztertuko ditu eta jardueren diagrama erabakiko du. Iraileko Osoko bilkuran, berriz, Akademiaren 2012ko planak, behin-behineko aurrekontuak eta jardueren diagrama berria aurkeztu eta berretsiko da. Azaroan egingo den Osoko bilkuran 2012ko planak eta behin betiko aurrekontuak onartuko dira. «Ildo estrategikoa garatzeko hurrengo urratsak» berretsi ditu Osoko bilkurak.

5. Esku artekoak.

5.1. Barne erregelak. Behin betiko testua banatu da, aurkezpena hobetzeko, tankera eta idazkera zertxobait ukitua.

5.2. Euskadiko Literatura Sarirako epaimahaikidea. Eusko Jaurlaritzatik helduriko eskariari erantzunez, Euskaltzaindiko Literatura Batzordeak Xabier Mendiguren Bereziartu euskaltzain urgazlearen izena proposatu du Euskadiko Literatura Sarirako mahaikidetzat, Zuzendaritzak 2011-06-17an aztertu eta berretsia.

5.3. Espainiako Kultura Ministerioaren eskaria. Espainiako hizkuntzen arteko argitalpenen edizioa eta itzulpena sustatzeko balorazio-batzorderako egindako eskariari erantzunez, Beatriz Zabalondo eta Joseba Erkizia proposatu ditu Zuzendaritzak (2011-06-17).

5.4. Jabetza Erregistratzaileen Elkargoarekiko hitzarmena. Euskaltzaindiak elkargo horrekin hitzarmen bat izenpetu du egoitzan 2011-06-22an. Euskaltzainburuak horren zergatia azaldu du, onomastika-ikerketak egitean sor litezkeen isilpe-kotasun-arazoak bideratzeko, hain zuzen.

5.5. Kutxa Fundazioak Tolare baserrirako laguntza. A. Sagarnak azaldu duenez, Euskaltzaindiko Gipuzkoako ordezkariak Akademiaren izenean Kutxa Fundazioaren Elkarlanerako Zuzendari den Mikel Mendarteri egindako laguntza-eskaerak baieztatu erantzuna izan du. Horren arabera, Tolare baserriko ikerketa gunerako, Kutxa Fundaziotik 150.000 euroko laguntza jasoko du Euskaltzaindiak, hiru zatitan banaturik: hitzarmena izenpetzean 50.000 euro, 2012ko lehen hiruhilekoan 50.000 euro, eta 2013ko lehen hiruhilekoan beste 50.000 euro.

5.6. Errioxako Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena. Euskaltzaindiak eta Errioxako Unibertsitateak hitzarmen bat sinatu dute, *Euskera*

agerkariaren prestigio eta ikusgarritasuna areagotzeko. Hitzarmenaren ondorioz, Errioxako Unibertsitateak kudeatzen duen DIALNET atari bibliografikoan Akademiaren agerkari ofizialaren presentzia laster indartuko da mundu zabalean. Izan ere, horixe da hispaniar munduan sarrera libre eta doanekoa eskaintzen duen atari bibliografiko garrantzitsuenetako bat, eta, Internet-en, gizarte-zientzien alorreko literatura zientifikoari ikusgarritasun handiena ematea dauka helburu.

5.7. Euskaltzainei banatu zaizkien liburuak

Euskaltzainen artean honako liburuok banatu dira:

- *Escritores euskéricos contemporáneos*. Euskaltzainak bildumako 15.zenbakia. Gorka Aulestia.
- *Perpetua Saragüeta: Eskutitzak eta hiztegia*. Mendaur bildumako 9. zenbakia. Andres Iñigo.
- *Euskal Herriko Udalen Izendegia*. Izenak bilduma berriaren lehenbiziko alea. Onomastika batzordeak.
- *Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra: Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina*. Iker bildumako 26. zenbakia. IKER 26, CD formatua
- *Euskera 2010, 1* eta *Euskera 2010, 2* liburukiak.

5.8. Hurrengo batzarrak.

Euskaltzaindiak urte bukaerako pentsaturik dauzkan bilkurak honako hauek dira:

- Irailak 30: Nafarroan Osoko Batzarra Tafallako udaletxean (ordutegia 9:30-12:00). Arratsaldean, Ageriko bilkura Tafallako Kultura Etxean.
- Urriak 28: Donostian, Osoko eta Ageriko Bilkura, Tolare-ren inaugurazioa.
- Azaroak 25: Bilbon, Osoko bilkura.
- Abenduak 16: Baionan, Ageriko bilkura, A. Xahoren II. mendeurrena.

6. Azken ordukoak

6.1. 2010. urteko Ageriko bilkuretako bilera-agiriak

Ondoko ageriko batzarren aktak banatu dira:

- **Atarrabikoa**, 2010/9/24an urte bereko «Nafarroa oinez» dela eta, bertako ikastolan egina.
- **Baionakoa**, 2010/10/30an Xarles Bidegain euskaltzain osoaren sarrera hitzaldia, Baionako Herriko Etxean egina.

- **Bilboko**a, 2010/11/26an *Hiztegi Batuaren* paperezko edizioa eta *Gasteizko Ubarrundia* egitasmoa aurkezteko ekitaldiena.
- **Zarautzen**, 2010/12/17an Frantziskotarren Zarauzko Komentuaren 400. urteurrena ospatzeko burutua.

Guztiok aurtengo irailaren 30ean onartzekoak dira, euskaltzainen ohar-zuzenketak jaso eta aztertu eta gero (irailaren 16a da ekarpenak egiteko azkeneko eguna), ondoren, Euskera agerkarian argitara emateko.

Aurten urtarril-uztail bitartean eginiko ageriko bilkuren aktak, aldiz, iraileko Osoko Batzarrean aurkeztuko dira, azarokoan onartzeko.

Eta besterik ez dela, Batzarra 12etan amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Bilbon, 2011ko uztailaren 22an

Bilbo, 2011ko uztailaren hogeita bian, egoitzan, Euskararen Akademiaren webgune berria aurkezteko eta Euskararen Hiztegi Etimologikoaren berri emateko, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain Osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Aurelia Arkotxa buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Pierre Charritton, Jean-Louis Davant, Jean Haritschelhar, Jose Irazu (Bernardo Atxaga), Joseba Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Ohorezko euskaltzainak: Jose Mari Iriondo.

Euskaltzain urgazleak: Pruden Gartzia, Dorleta Alberdi, Pello Esnal eta Rikardo Badiola.

Joseba Zabaleta kudeatzailea eta Erramun Osa idazkariordea.

Euskaltzaindikoko langileak: Lutxi Alberdi, Jon Artza eta Amaia Okariz.

Euskaltzainburuak hitza hartu du ekitaldiaren nondik-norakoa azaltzeko. Izan ere, Euskaltzaindiak webgunea eraberritu du, itxuraz aldatuz, eta eduki berriak gehituz, beraz, garrantzi handikoa da egindako urratsa. Era berean, Euskararen Hiztegi Etimologikoa egitasmoari buruzko argibideak ere emango dira Ageriko bilkuran.

Euskaltzainburuak idazkariordeari hitza eman dio, eta honek, webgune berrituari buruzko azalpenak eskaini ditu.

Akademiaren Informazio eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) batzordearen gidaritzapean burutu dira webgunea eguneratzeko lanak. Batzorde hori 2007an eratu zen, eta hasieratik jarri zuen arreta berezia Akademiaren webgunean. Hala bada, 2008an webgunea edukietan erabat berritu zen, eta Web 2.0 teknologiarako egokitu. Orain, 2011n, prozesu horren urrats berria egin da.

Webguneak beti eman duen informazioa eskaintzen du: batetik, erakundeari buruzko informazio zabala, eta bestetik, Euskaltzaindiaren Arauak, Hiztegi Batua, Izendegiak, Corpora edota Azkue Bibliotekaren eta Argitalpen Katalogoak ere. Horrez gainera, badira, bi eduki berri: Orotariko Euskal Hiztegiaren bertsio berria eta *Auspoa* bildumaren artxiboa; azken bilduma horren liburuak bere webgunean eskaini ahal izateko, Euskaltzaindiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena eta laguntza izan ditu.

Orotariko Euskal Hiztegiaren atala aipatu den unean, Ibon Sarasola euskaltzainari hitza eman dio euskaltzainburuak. Honek, OEHren bertsio berrituari buruzko argibideak azaldu ditu. Euskaltzaindiaren webgune berrian agertzen den OEHren bertsioa ez da orain arte webgune zaharrean zegoena, paperezko bertsioaren sareratze hutsa zena. Izan ere, Bertsio berriak bi aldaketa nagusi ditu. Lehen aldaketa lehenengo bost liburukien formatuari dagokio. Bigarren aldaketa, ostera, paperezko bertsioa kaleratu ondoren OEH aberasteko gehitu diren material berriei dagokie.

Jakinaenez, OEHren lehen liburukiak ez daude geroago erabili den sistema berberean eginak. Arazo nagusia hau zen: lehenengo liburukien sistema jarraituz OEHk 24 liburuki izango zituen, eta hainbat urtez atzeratuko zen lana amaitzea. Horiek horrela, Euskaltzaindiak ondoko erabakia hartu zuen: OEH 16 liburukitan eman behar zen. Erabaki horren ildotik 6. liburukitik aurrera hiztegi materialak emateko sistema aldatu zen. Hortaz, bigarren bertsio honetan batasuna eman zaio OEHri, lehen bost liburukiak irizpide berrien haritik zuzenduz, osatuz eta trinkotuz. Horrez gainera, urteetan zehar bildutako ohar, era guztietako zuzenketa eta beharrezko gehikuntzak hiztegitatu dira 16 liburukietan. Orotarikoaren lehen bertsioan 12.5276 sarrera eta 41.839 azpi-sarrera zegoen; bigarren bertsioan 140.464 sarrera eta 52.243 azpi-sarrera.

Bigarren aldaketari dagokionez, OEHren bertsio honek azken urteotan agertu diren materialak bereganatu ditu. Horien artean garrantzizkoena, bistan da, Lazarragaren eskuizkribua da. Eskuizkribu honetako alde lexikografikoa osorik hiztegitatu da. Horretaz gain Duhaldek idatziriko Birginia testua, Euskaltzaindiak publi-

katu berri duena eta Larramendiren hiztegiaren eragina Iparraldean erakusteko ezinbestekoa dena, osorik hustu da OEHRa. Besterik ere sartu da, Hegoaldeko XVI. eta XVII. mendeetako testu guztiak hiztegiratzeko falta ziren dokumentuak, besteak beste.

Ibon Sarasolaren azalpenen ondoren, Jose Mari Iriondo ohorezko euskaltzainak hartu du hitza. Honek, Pello Esnal eta Xabier Kaltzakortarekin batera *Auspoa* bildumaren ardura du, Antonio Zavala zenak hala erabakita. Haiekin batera, Joakin Berasategi Sendoa argitaletxeko editorea ere Bilbon izan da, aurkezpenean parte hartuz.

Jakina denez, *Auspoa* bilduma Antonio Zavala (1928-2009) euskaltzain osoak sortu eta gidatutako liburu-bilduma da. Hasieran, izen bera zuten argitaletxeak eta bildumak. Baina 1994tik 2003ra Sendoak hartu zuen *Auspoa* bildumako liburuak argitaratzeko ardura eta, azken data horretatik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundiak. Esan bezala, bilduma horren liburuak bere webgunean eskaini ahal izateko, Euskaltzaindiak erakunde horren baimen eta laguntza izan ditu.

Auspoa bilduman hiru sail bereiz daitezke. Lehena eta ugariena, *Auspoa* liburutegia deitua; arrunki *Auspoa* bildumarekin identifikatzen da, eta 2006ra arte 302 zenbaki argitaratu zituen. Horrez gainera, bada beste bilduma laburrago bat: *Auspoa* liburutegi nagusia deitua, 12 zenbaki atera dituena. Eta, azkenik, hirugarren saila: izenik eta zenbakirik gabea, zortzi liburuz osatua. Antonio Zavalaren gidaritzak ematen die liburu guztiei batasuna.

Jose Mari Iriondoren hitzen ondoren Erramun Osa idazkariordeak hartu du hitza, webgunearen itxura, atalak eta edukiak labur-labur azaltzeko.

Andres Urrutia euskaltzainbureauaren hitzekin bukatu da webgunearen aurkezpena, hedabideen aurrean ere egin dena. Atsedena hartzeko tarte labur bat egon da. Tarte honen ostean, Joseba Andoni Lakarra euskaltzainak, Euskal Hiztegi Etimologikoa aurkeztu du. Aurkezpenean Julen Manterola eta Iñaki Segurola teknikariaren laguntza izan du.

EHE-aren helburua zen 2012aren amaierarako euskal hiztegi etimologiko baten oinarritzko prototipoa izatea; hots, 1000 bat hitz hautatuko bilduma bat eta eskuliburu bat, egindakoa azaldu eta hiztegi etimologiko estandar bat (6000-7000 hitz) ondoren idazteko oinarriak jarriko zituena. Horiek horrela, egitasmoan orain arte aurreratutakoa (adibideak eta guzti), beste hizkuntza batzuetan landutako hiztegiak, egindako alderaketak, eta abar, azaldu dira. Halaber, 2012ko

abenduaz geroz baino ezingo litzateke egin ezinbestekotzat jotako EHE-ren ingelesezko bertsioa.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzekin bukatu da Ageriko bilkura, 13:20 direnean.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,
idazkaria